



DOCENTIAZ PROGRAMA
UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren
ebaluazio programa

FASE ESPERIMENTALEKO SEIGARREN DEIALDIA

2016ko Otsaila

**GRADU IKASKETEN ETA BERRIKUNTZAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE ESTUDIOS DE GRADO E INNOVACIÓN**

**IRAKASLANA EBALUATZEKO ZERBITZUA / SERVICIO DE EVALUACIÓN
DOCENTE**

1. DEIALDIAREN HELBURUA

DOCENTIAZ programaren seigarren deialdi esperimentalak UPV/EHUko irakasleen irakaslanaren kalitatea hobetzea eta aintzatestea du helburu, baita informazio fidagarria eta egiaztatua ematen duen irakaslanaren ebaluazio prozedura bat izatea ere.

2. DEIALDIRA AURKEZ DAITEZKEENAK

Deialdi honetara UPV/EHUko irakasleak aurkez daitezke, funtzionarioak zein lan kontratudunak, arduraldi osokoak zein partzialekoak. Programan sartzen dira UPV/EHUUn ematen diren ikasketa ofizial guztiak (graduak, masterrak eta doktoregoko ikasketak). Programatik kanpo geratzen dira goi mailako beste erakunde batzuetan egindako lana eta UPV/EHUko berezko tituluetan egindakoa.

Deialdi honetan, salbuesenez, sei ikasturtetako merezimenduak ebaluatuko dira, hau da, 2009/10 ikasturtean hasi eta 2014/15 ikasturtera bitartekoak. Beraz, deialdi honetan parte hartu ahal izango dute lehenengo deialdian, 2010ekoan eta bigarren deialdian, 2011koan hurrenez hurren, parte hartu zuten irakasleek. Seigarren deialdi honetara ezin izango dira aurkeztu azken hiru deialdietako batera aurkeztu diren irakasleak.

DOCENTIAZ programan parte hartu ahal izateko, karrerako funtzionarioek, lan kontratudun iraunkorrek edo lan kontratudun egonkorrek (irakasle oso edo agregatuek) eta lankide iraunkorrek kontratu bidez gutxien dela bost urteko lan harremana izan behar dute UPV/EHUrekin, eta aldi baterako kontratua duten irakasleek (irakasle atxikiak, lankideek, elkartuek eta bitarteko lan kontratudunek) gutxien dela hiru urteko harremana.

Honakoak dira karrerako funtzionarioek, lan kontratudun iraunkorrek edo lan kontratudun egonkorrek (irakasle oso eta agregatuek) bete behar dituzten baldintzak DOCENTIAZ programan parte hartu ahal izateko:

1. UPV/EHUrekin, kontratu bidez, gutxienez bost urteko harremana eduki izana.
2. **Ebaluazio epean** ondorengo irakaskuntza enkargua izana:
 - 22,5 kreditu, arduraldi osoko irakasleek.
 - 15 kreditu, arduraldi partzialeko irakasleek.
 - 15 kreditu, kargu akademikoan dihardutelako eskola ematetik salbuetsita dauden irakasleek.

Honakoak dira aldi baterako kontratudunek, lan kontratudun iraunkorrek edo lan kontratudun egonkorrek (irakasle atxikiak, lankideek, elkartuek eta bitarteko lan kontratudunek) bete behar dituzten baldintzak DOCENTIAZ programan parte hartu ahal izateko:

- UPV/EHUrekin, kontratu bidez, gutxienez hiru urteko harremana eduki izana.
- Denbora horretan gutxienez 15 kredituko irakaskuntza zama egin izana.

Inoiz aldi baterako kontratua izanda eskaria egitean kontraturik izan ez arren UPV/EHUrekin, parte hartu ahal izango da DOCENTIAZ programan, betiere, zehaztutako baldintzak betetzen badira.

3. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

Seigarren deialdi honetan, ebaluazio eskaria eta autotxostena egiteko epea hilabetekoa izango da, hau da, otsailak 15tik martxoak 15 arte (biak barne).

Irakasleak LDAP sartu behar du aplikazioan, eta aplikazioak berak esango dio parte hartzeko aipatzeko baldintzak betetzen dituen edo ez.

Baldintzak betez gero, ebaluaziorako eskaria egiteko pantaila aktibatuko da, eta irakasleak irakasgai bat aukeratu beharko du autotxostena egiteko. Irakasleak hautatutako irakasgaiari dagokion ikaslearen gida erantsi behar du (alegia, irakasleak ikasleei banatzen dien gida).

Aukeratutako irakasgaiak gutxien dela honako baldintzak bete behar ditu:

- gutxienez bost ikasle izatea matrikulatuta.
- irakasgaiari dagozkion kredituetatik gutxienez %30 norberak ematea, eta ehuneko hori gutxienez kreditu bat izatea.
- irakaskuntza egoeraren txostenen bat izatea.
- ez da kontuan hartuko ondorengoetako irakaslanak: doktoregoa; practicuma; karrera, gradu edo master amaierako proiektuak; eta esperientziaren gelak.

Irakasleak, egoki izanez gero, ontzat emango ditu ebaluazio eskariko datuak, eta eskaria, unean bertan, UPV/EHUko Erregistro Orokorrean jasota geratuko da zigilu eta guzti. Ondoren, autotxostena osatu behar da horretarako zehaztutako epean. Behin hori eginda, ikastegiko kalitate batzordeak txostena beteko du, aplikazioan, 15 egun naturaleko epean.

4. EBALUAZIO PROZESUA

Irakaslanak Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (CUED/IEUB), Errektoreak izendatu eta Gobernu Kontseiluak berretsitakoak, telematikoki kontsultatu ahal izango ditu irakasleek, ikastegietako kalitate batzordeek eta ikasleek emandako informazioa biltzen dituzten espedienteak. CUED/IEUBk gutxienez hiru hilabete izango ditu informazioa aztertzeko eta txostena irakasleari bidaltzeko; hori guztia, datu pertsonalak babesteko arauak beteta.

5. AZKEN TXOSTENA PRESTATZEA ETA ZABALKUNDEA EMATEA

Irakaslearen amaierako txostenak dimentsioetako bakoitzaren balorazio kuantitatiboa barne hartzen du, baita irakaslearen irakaslanari buruzko amaierako balorazio kualitatiboa ere (hemen nabarmendu beharreko jardunbideak aipatu behar dira).

- Kontrako ebaluazioa: kontrako ebaluazioa izango da irakaslearen amaierako txostenean **50** puntu baino gutxiago lortzen dituenak.
- Aldeko ebaluazioan hiru kategoria sartzen dira:
 1. Ebaluazio onargarria: ebaluazio onargarria izango da irakaslearen amaierako txostenean **50**eko eta **70** puntu baino gutxiago lortzen dituenak.
 2. Ebaluazio oso ona: ebaluazio oso ona izango da irakaslearen amaierako txostenean **70**eko eta **90** baino gutxiago puntu artean lortzen dituenak.

3. Ebaluazio bikaina: ebaluazio bikaina izango da irakaslearen amaierako txostenean **90** puntu baino gehiago edo berdina lortzen dituen.

Aldeko ebaluazioa izanez gero, lortutako puntuazioak hurrengo bost urteetan izango du balioa, epe hori pasatu ostean, irakasleak aukera izango du berriz aurkezteko, urte horietako irakaskuntzaren ebaluazioa egiteko. Bestalde, kontrako ebaluazioa izanez gero, ez du bost urte itxaron behar berriro aurkezteko, eta nahi duenean aurkeztu ahal izango da berriro.

Ebaluazioren emaitzak, arloko, eskuragarri jarriko dira IEZren web gunean. Ikastegirako diren azken txostenak arduradunari bidaliko zaizkio. Irakasleen ebaluazioaren arloan eskumena daukan errektoreordeak txosten guztiak hartuko ditu prozesu horretako emaitzak ikusita hartu beharreko erabakiak har ditzan, baina, betiere, kontuan hartuta informazio hori isilpekoa dela.

6. ALEGAZIOAK EGITEKO PROZEDURA

Azken emaitzei buruzko alegazioak egiteko epea hilabetekoa izango da, amaierako txostena hartzen den egunetik kontatzen hasita. Alegazioak DOCENTIAZ aplikazioan dagoen alegazio orriaren bidez egin behar dira, eta orri horri egoki diren agiri eta egiaztagiriak erantsi ahal izango zaizkio. Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitateko Batzorde (CUED/IEUB) gutxien dela hilabeteko epea izango du alegazioak aztertzeke eta ebazteke eta azken txostena egiteke.

Amaierako txosten horren kontra gorako errekurtsioa aurkez dakioke UPV/EHUko errektoreari, eta hark Berme Batzordera bidaliko du.

7. PROGRAMARI BURUZKO INFORMAZIOA

Deialdi honi buruzko informazio guztia Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuko web orrian kontsulta daiteke.